



Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irailak 15, 2017

Irrunero

309

Euskal dantzak
Italiara eramanez
ditu Kemenek

- 2 Irun atzo Irun Gaur
- 3 Euskaltegiko izen-ematea
- 4-5 Indoamerika Herria Elkarte
- 6-7 Mertxe Trancheri elkarrizketa
- 8 Kirolak: Leire Landa
- 9 Kirolak: Txingudi Korrika
- 10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11 Haurren leihoa
- 12 Gazteen lanak
- 13 Gaztea: Kemen dantza taldea Italian
- 14 Gazte informazioa
- 15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

PIKOKETA KALEA



G48962



1979ko irailaren 6ko Osoko Bilkuran jarri zioten izena, J.L.Ociok eta A.Aranburuk proposatuta, Uranzu koalizio independenteak eskatuta. Kale Nagusiaren eta Colon ibilbidearen zeharkakoa da, eta Aldapeta kalearen paraleloa.

Oiartzun udalerriko lurretan kokatuta dauden mendi baten eta baserri baten izena da, baina eremu osoa izendatzeko erabiltzen da. Irungo Udalak kaleari izen hori ematea erabaki zuenean, hiru helburu bete zituen aldi berean: Irunekin muga egiten zuen toki baten toponimoa gordetzen zuen, 1936an Pikoketan erail zituztenei omenaldia egiten zien, eta Beorlegui Koronel frankistaren izena ordezkatzen zuen.

Pikoketaren esanahiari dagokionez, Jose Antonio Loidik azaldu zuen pikondoan tokiari erreferentzia egiten diola. Beste izen batzuk ere eduki ditu kaleak aurretik. 1896ko abenduaren 7an, adibidez, "Once de Noviembre" izena eman zioten, 1874an tropa karlistek Iruni ezarrita zioten setioa altxatu zuten eguna gogoratzeko. Liberalek denbora luzez ospatu izan zuten garaipen hura, zinegotzi karlisten protestak izan arren.

1937ko maiatzaren 26an "Coronel Beorlegui" izena jarri zion udalbatzak, 1936ko irailean Francoren aldeko tropen buruan sartu zen militarra goraipatuz. Berak eman zuen, hain zuzen ere, Pikoketan hamasei gazte epaiketarik gabe fusilatzekeo agindua.

**Iturria: José Monje
Irungo kaleen izenak**

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Unai Oiartzun
Ainara Berges

Euskara zuzentzilea:

Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Zabalik dago Irungo Udal Euskaltegian izena emateko epea

35 urte beteko ditu aurten euskaltegiak



Irungo beste euskaltegiak:

Aek: izena emateko epea zabalik. Legia Kalea 6. 943628834. irun@aek.eus

Herri Jakintza: izena emateko epea zabalik. Nafarro Hiribidea 13. 943635266. herrijakintza@gmail.com

Irailaren 4an ireki dute Irungo Udal Euskaltegian izena emateko epea, eta hilaren 18ra arte egongo da zabalik. Euskaltegian bertan, 943 505 173 telefono zenbakian edo euskaltegi@irun.org web gunean eskura daiteke informazioa. Iaz 35 talde eta 400 ikasle eduki zituen euskaltegiak, eskaintza osoa kontuan hartuta. 35. urteurrena du aurten Irungo Udal Euskaltegiak.

HABE Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ematen dituen ziurtagiriak lortzeko aukera eskaintzen du Irungo Udal Euskaltegiak. A1, A2 eta B1 mailako tituluak euskaltegian bertan ateratzeko parada dago, ebaluazio jarraia bidez. B2 eta C1 mailak lortzeko, berriz, azterketa ofizialetara aurkeztu beharra dago. Edonola ere, maila guztietarako ikastaroak eskaintzen ditu udal euskaltegiak, goizeko eta arratsaldeko ordutegietan. Aste-lau eta bost orduko ikastaroak dira, gazteei eta helduei zuzenduak.

Bestalde, ostalaritza eta merkataritzako langileei zuzendutako ikastaroak daude, eguerdian. Gurasoentzako taldeak, eta AISA ikastaroak ere eskaintzen ditu euskaltegiak, azken horiek, atzeritik edo estatuko beste tokietatik etorritako jendeari zuzenduak. Badira mintza taldeak, praktika lantzeko, eta beste zenbait jardura osagarri ere bai. Udara honetan, esaterako, Hondarribiko Iruzta txakolindegira bisita, edo Txingudi badien itsas-ibilaldia egin dituzte euskaltegiko ikasleek.

Langabeentzako ikastaroak eta euskara ikasteko bekak

Lannahi, langabeei zuzendutako doako euskara ikastaroak eskaintzen ditu Irungo Udal Euskaltegiak. Bost txanda izango dira, hiru ikasturtean zehar, eta bi udaran. Ikasturtean zehar goizeko txandetan ariko direnek lau ordu egingo dituzte egunean, eta arratsaldetakoek hiru. Interesa duenak txanda bakoitzerako izena eman beharko du, HAZ-SAC 24 ordu zerbitzuaren bidez, Irungo Txartela edo beste ziurtagiri digital batzuk erabiliz. Bestela, HAZeko autozerbitzu terminaletan (San Martzial kalea, 2) egin daiteke, egunero, 8:00etatik 22:00etara.

Era berean, 2016-2017 ikasturtean euskara ikasten aritu zirenei bekak eskaini dizkie Irungo Udalak. Urriaren 6ra arte egin dezakete eskaera, HAZ-SAC 24 ordu zerbitzuaren bidez, edo HAZeko autozerbitzu terminaletan. Irungo Txartela edo beste ziurtagiri digital elektronikoko batzuk erabili beharko dira horretarako. 58.000 euroko diru poltsa du udalak bekatarako. "Euskara ikasteko ahalegina egin duenari, lagundu behar zaio", azpimarratu du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.

Pasa den urteko tasa sistema mantenduko du udalak. Zenbat eta euskara eskola ordu gehiago hartu, orduan eta merkeagoa izango da orduko prezioa. "Hizkuntza bat ahalik eta azkarren ikasteko, ahalik eta ordu gehien eskaini behar zaizkio", gogorarazi du Josune Gomezek. Hilero ordaintzeko aukera eskainiko du Irungo Udal Euskaltegiak, idatziz eskatuz eta ordainketa helbideratuta, beti ere.

"Hizkuntza bat ahalik eta azkarren ikasteko, ahalik eta ordu gehien eskaini behar zaizkio"

Josune Gomez, Euskara arloko ordezkaria

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza


Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

Indoamerika bidasoarra

1000 latinoamerikar baino gehiago bizi dira Irunen

Aholkularitza juridikoa eskaintzeko elkarte eratu dute

XXI.mendearen hasierako migrazio olatuarekin iritsi zen Mario Miranda (Piura, 1961) peruarra Behe Bidasoara. Unibertsitate ikasketak zituen arren, arrantzale sartu zen, Hondarribian, bere jaioterriko arrantza tradizioa eta txikitatik barneratutako jakituria baliatuta. Eraikuntzan eta bestelako lanetan ibili izan da ondoren. Baina zuzenbidea ere ikasi du, EHUn, eta abokatutza masterra amaitu berri du. Bere formazioari etekina atera eta Irungo eta inguruko latinoamerikarren kolektiboari laguntza eskaini nahi dio orain, Indoamerika Herria elkartearen bidez.



Estrella Radiante elkartearen lekukoa hartu zuen, 2015eko abenduan, Indoamerika Herriak. Integrazioaren eta elkarbizitzaren arloan lan egiteko sortu zuten aurrekoa, 2010ean. "Hasieran, bazkideen %80 peruarrek ginen, gure lagunartean osatu baikenuen. Elkar ezagutzen dugu, eta gure arteko harremana naturalagoa da", azaldu du Mario Mirandak. Gaur egun, 100 inguru dira Indoamerika Herriaren, herrialde ugariak: Peru, Bolivia, Ekuador, Kolonbia, Venezuela, Nikaragua eta Honduras, besteak beste. Irun hiri osoan, jatorri latinoamerikarra duten mila biztanle inguru egongo direla kalkulatu du peruarrek.

Elkar-truke kulturalako jarduerak burutzen dituzte oraindik ere: hitzaldiak, dantzaldiak, topaketa gastronomikoak etab. Jarduera horien helburu nagusien berri eman du Mirandak: "Bertako kultura barneratzeaz gainera, gurea zabaltzen ere ahalegintzen gara. Jende askok hirugarren munduko hiritar gisa ikusten gaitu, eta guk nabarmendu nahi dugu ez garena ez-

jakinak, kultura duten herrietatik gatzela". Gastronomiak, hain zuzen ere, lanpostuak sortu dizkiela nabarmendu du Mirandak. Latinoamerikatik etorritako migranteek kudeatutako jatetxe bat baino gehiago dago, hain zuzen ere, Irunen.

Aholkularitza juridikoa eskaintzen dute

Indoamerika Herriak eskaintzen duen beritasuna, ekarpen nagusia, aholkularitza juridikoa da. Lakaxita gunean elkartzen dira, asteazkenero, 10:00etatik 14:00etara. "Udaren ondoren ordutegia zabalduko dugu, eta egun osoan zehar eskainiko dugu aholkularitza. Behararen arabera, egun gehiagotan ere elkartuko gara", baieztatu du Mirandak.

Peruarrek azaldu du egoera irregularrean dauden migranteek behar izaten dutela, batez ere, laguntza: "Egoera hori falta administratiboa besterik ez da, ez da penala. Baina askotan, polizia migranteak atxilotzen ditu, atxikitze administratiboaren aitzakiarekin". Batzuetan, dagokion pro-

zedura errespetatu gabe deportatzen dituztela salatu du Mirandak: "Ez baldin badu inork esku hartzen, konturatzeko, Latinoamerikan dira gazte horiek. Gure helburua da abusuak ekiditea, bide judizialaren bitartez".

Irungo eta Donostiako polizia-etxeekin harremanetan jarri dira, dagoeneko, haien lanaren berri emateko. "Latinoamerikako edo munduko beste edozein lekutako migranteek jakin dezatela, behar izanez gero, gure laguntza jasoko dutela. Behar gaituzten lekuetan egongo gara, baita auzitegietan ere", azpimarratu du Mario Mirandak. Babes gehien behar duen beste kolektiboetako bat, etxeetan

lan egiten duten emakume migranteena da: "Abusu ikaragarria dago haiekin".

Badira migranteei babesa eskaintzen dieten bertako elkarte eta Gobernu Kanpoko Erakundeak. Baina horietako askoren lana zalantzan jarri du Mirandak. Kritika gogorak egin ditu peruarrek: "Nekatuta gaude askok migrazioaren koplari ateratzen dioten etekin ekonomikoarekin. Jasotzen dituzten diru-laguntzen eta finantziazioaren zati handi bat ez dute migranteen mesedean erabiltzen. Diru asko bidean geratzen da, bakar batzuen poltsikoetan".

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com





Mario Miranda (eskubian) elkarteko kide batekin.

Integrazio erraza izan dute

Latinoamerika baino, Indoamerika hitza nahiago du Mario Mirandak: "Gure herrialdeek Ameriketako Estatu Batuekiko mendokotasun handiagoa zuten garaian, Latinoamerika eta Panamerika hitzak erabiltzen ziren. Baina gure ustez, kolonia kutsua ematen digute. Indoamerikak gehiago lotzen gaitu gure historiarekin eta kulturarekin". Peruar gisa, Inka herriaren oinordeko izateaz harro dago. Espainiarren konkistaren aurretik, inken kultura, artea eta zientzia oso aberatsak zirela azpimarratu du. Geroko migrazioen ondorengo ere badela aitortu du, dena den, Mario Mirandak: "Mestizaje handi baten seme-alabak gara".

Horixe kontuan hartu zuen, hain zuzen ere, Alberto Fujimoriren diktaduraren garaian, Euskal Herrirako bidea hartzea erabaki zuenean. Bere herrikide gehienek migrazioa, ordea, ez dio politikari egotzi: "Krisi ekonomikoak eragin zigun, batez ere". Ameriketako Estatu Batuetara joan zitekeen Miranda. "Baina nik ez dut arbaso ingelesik edo irlandarrik", argudiatu du. Euskal herritarrak egon ziren, besteak beste, Piuraren, bere jaioterriaren fundazioan. Hondarribira arrantzale etortzeko aukera sortu zitzaion, eta 2001ean eman zuen urratsa. Oso eskertuta dago jaso zuen harrerarekin, eta topatu zituen lan baldintzekin ere bai. "Bertako arrantzaleen baldintza berdinetan hasi ginen.

"Gure helburua da abusuak ekiditea, bide judizialaren bidez"

"Indoamerika hitzak gehiago lotzen gaitu gure historiarekin eta kulturarekin"

Mario Miranda,
Indoamerika Herria
elkarteko Presidentea

Ameriketako Estatu Batuetan, berriz, migrante batek bertako baten soldataren erdia ere ez du jasotzen", azaldu du Mirandak.

Nabarmendu du, era berean, ez zuela integratzeko zailtasunik izan: "Hizkuntzari dagokionez, abantaila dugu beste migrante batzuekin alderatuta. Gainera, kulturen arteko aldea ez da horren handia". Arrazismo arazo gehienak, Espainiako estatuko beste lekuetatik etorritako migranteekin eduki dituela baieztatu du: "Lana lortzeko kompetentzia gisa ikusten gaituzte". Gainerakoan, eskertuta dago jaso duen harrerarekin. Gogoan du lehen aldiz ailegatu aurretik, Euskal Herriari dagokionez kontaktu izan ziotena: "Guri esana ziguten Euskal Herrian liskar politiko handia, segurtasun eza eta terrorismoa zeudela. Lehen mezulariak izan ginen, gure herrialdeetan esateko Euskal Herria leku lasaia, segurua eta atsegina zela".

Gaur egun, migrazio fluxuen zentzua aldatu egin da. "Jende kualifikatua joaten da hemendik gure herrialdeetara, han behar handia dagoelako", adierazi du Mirandak. Bera ere bueltatu izan da, baina ez du behin-betiko Perun geratzeko asmorik: "Nire familia hemen daukat, nire seme gazteena hemen jaioa da". Bere etxea da, jada, Irun.

www.bertako.eus - info@bertako.eus

bertako
igogalduak | ascensores
igogailuen mantentzen-lanak

- ✓ 24 orduko asistentzia abixu guztientzat
- ✓ Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
- ✓ Orotariko zerbitzua 100 € -tik aurrera
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

MERTXE TRANCHE, ikertzailea:

“Goraipatzekoa da Errepublikaren garaian langabeziaren arazoa gainditzeko udalak eta hiri osoak egin zuten lana”

Tokiko best-sellerra izan da Mertxe Tranche Iparragirreraren *Los buenos hijos* liburuaren lehen bolumena. Bi edizio saldu ditu jada, apirilean argitara atera zenetik. Nicolás Guerendiain Irungo Errepublikarren elkarteak argitaratutako liburua dela kontuan hartuta, ez da marka makala. Bigarren Errepublikak, Gerra Zibilak eta ondorengo diktadurak oraindik ere pizten duten interesaren seinale. Tokiko ikuspegitik, beti ere, arlo soziala, ekonomikoa eta kulturala landu ditu, bereziki, Mertxe Tranchek.

Enkargu bat dago, *Los buenos hijos* liburuaren sorburuan. 2011n, gerraren ondorengo etheen inkautazioak aztertzeko eskatu zion Irungo Errepublikarren Elkarteak Mertxe Tranche ikertzaileari. Behin ikertzen hasita, ordea, laster konturatu zen lanak zabalagoa beharko zuela izan. “Hasitako pelikula baten erdian egongo balitz bezala sentitu nuen nire burua. Ez nuen ulertzen zergatik jasotzen zituzten batzuek etxerik onenak, eta, eta okerrenak beste batzuek”, azaldu du Mertxe Tranchek. “Nor da nor” hori ulertu ahal izateko, denboran atzera egitea erabaki zuen, Primo de Riveraren diktaduraren garairaino: “Iruditu zitzaidan puntu egokia zela, nolabait ere, Frankismoaren entsegu bat izan zelako”.

Zergatik erabaki zenuen bi bolumenetan banatzea?

“Nik ez nuen pentsatu bi bolumen beharko nituenik. Baina denbora aurrera zihoan, eta niretzat eta Nicolás Guerendiain elkartearentzat ere, beharrezkoa zen zerbait argitaratzea, sei urte pasa baitziren enkargua egin zidatenetik. Ikusten nuen, gainera, tamaina handia hartuko zuela liburuak. Hortaz, lanaren abiapuntu gisa plazaratu dugu lehen bolumena”.

1923-1936 epea kontatu du Mertxe Tranchek, beraz, lehen bolumenean. Primo de Riveraren diktadura (1923-1930) eta Bigarren Errepublika (1931-1936). Primo de Riveraren garaia aztertzea erronka handia izan da Trancherentzat. Izan ere, ez dago hura Irungo ikuspegitik lantzen duen beste lanik. Interes handiko epea dela uste du, hala ere, Mertxe Tranchek: “Hirigintzaren aldetik, egungo Irun hiriaren zati handi bat orduan erai-kiko dute. Baina bestalde, hirian agintea denbora luzez edukiko duen klasearen sorrera ere izango da”.

Prensa lokaleko argitalpenak izan dira Mertxe Trancheren iturri nagusi. Azpimarratu du, neurri handi batean, egungoa baino gizarte demokrati-koagoa zela hura: “Garaiko prentsan ez zegoen eztabaidarako beldurrik. Udal gobernuaren kontrako kritika ere bazegoen. Gaur isilarazita dago, ikara diogu. Egungo komunikabideek udal gobernuarekin harreman ona edukitzeko beharra dutela iruditzen zait”.







Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27
943 635259
IRUN
J. M. Iparragirre
kalea, 10 - behe 4
IRUN
652 777 360
kettysacademy@gmail.com

EGONALDIAK EEUUetako famillrekin



Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

“Garaiko prentsan ez zegoen eztabaidarako beldurrik. Udal gobernuaren kontrako kritika ere bazegoen”



Errepublikaren garaitik, zer azpimarrituko zenuke?

“Langabeziaren eta krisi ekonomikoaren arazoa gainditzeko udalak eta hiri osoak egin zuten lana goraiatzeko modukoa iruditzen zait. Ez da inoiz eskertua izan. Bestalde, boterean jarraitzeko jendeak izango dituen bilakaera politikoak ere interesgarriak dira. Azken finean, Primo de Riveraren diktaduraren garaitik datorren jendea da gero frankismoan boterea eskuratuko duena. Pena da klase politiko interesgarria galdu genuela. Gustatuko litzaidake jakitea zer nolako alkate mota izango zitekeen Nicolás Guerendiain”.

Nazionalismoaren indartzea ere orduan kokatu beharko genuke?

“Bai, baina EAJk udaletik kanpo egin zuen lana, Errepublikaren hasieran ez zelako Donostiako paktuan egon. Harrigarria da, bestalde, mugimendu euskaltzalean, zer nolako nahasketa politikoa zegoen, elkarte kultural eta gastronomikoetan bezala.

Hala ere, bi Irun zeuden orduan, orain bezalaxe: San Juan inguruko herriosemeena, eta Irun proletarioa, San Miguel auzokoa etab. Bitxia da, eta ez du zentzu handirik, San Juango horiek 20-30 urte gehiago besterik ez zeramatzatelako hirian. Herrioseme bakarrak, berez, baserritarrak besterik ez dira. Baina batzuk aduana agenteak ziren, eta trenbideko langileak, besteak. Hortxe diferentzia handiena”.

Benetako gertakariak kontatu ditu

Mertxe Tranchek liburuan, eta benetako izen-abizenak eman ditu. “Xalotasun” puntu bat eduki duela aitortu du, eta ez zuela uste gaiak horrenbesteko interesa piztuko zuenik: “XVIII. edo XIX. mendeko gai batekin ariko banintz bezala lan egin dut. Baina jende asko gerturatu zait, ez kontu eske, baina bai galderak edo iruzkinak egitera”. Bigarren liburuan, tentu handiagoz ibili beharko duela iruditzen zaio Trancheri. Lehenengo liburuaren esperientziaren ondoren, ondorioak gehiago neurtuko dituela onartu du: “Hala ere, baditut kon-

pondu gabeko dilemak. Esate baterako, frankismoko salatariekin zer egin, izen-abizenak eman edo ez. Nire asmoa ez da inor mintzea, baina burura datorkit, era berean, zergatik daukagun beldur hori, haiek ez zutenan eduki”.

Mertxe Tranchek baieztatu du, errepresio politikoa baino gehiago, klase errepresioa izan zela gerraren ondoren. “Nazionalistek zigor ekonomikoak jaso zituzten”, aitortu du ikertzaileak: “Baina preso egon zen jendea, PSOEkoa, PCEkoa, UGTkoa edota CNTkoa izan zen. Ezkerreko talde proletarioetakoa, hain zuzen ere”. Aztertu duen etxeen banaketa, esaterako, klaseen araberakoa izan zela adierazi du Tranchek. Altzarien eta bestelako objektuen banaketa ere egon zela nabarmendu du: “Jaime Rodríguez Salisek *El niño republicano de Berain* liburuan kontatzen du, erbestetik etxera itzuli zirenean, bizilagunak haien jostailuekin topatu zituztela”. Liburuaren bigarren bolumenean emango ditu Tranchek gai horiei buruzko xehetasunak.

Noizko izango duzu prest bigarren zatia?

“Ikerketa eginda daukat, baina aire pixka bat behar nuen, erredaktatzen hasi aurretik. Alde batetik, jendearekin feedback-a edukitzeko. Salerosketei dagokienez, ezin dut gehiago eskatu, bi edizioak agortu dira. Bestalde, nirekin harremanetan jarri diren gehienak, eskuineko jendearen ondorengoak izan dira, beldurra ematen zielako haien arbasoak nola irudikatuko nituen. Eskerrak eman dizkirate, oro har. Jende gehienak bigarren bolumena noizko egongo den galdetu dit. Lehenengoa aurkezpen bat balitz bezala, eta bigarrena korapiloa”.

Buruari atsedena emateko beharra ere bazuela aitortu du Mertxe Tranchek, esku artean duena ez baita gai samurra: “Oso gertuko gaia da, protagonisten seme-alabak edo ilobak topatzen ditut kaletik”. Irailean heldu dio berriro idazketari, eta datorren urteko udarako prest eduki nahi luke.

“Preso egon zen jendea, ezkerreko talde proletarioetakoa izan zen”

dut gehiago eskatu, bi edizioak agortu dira. Bestalde, nirekin harremanetan jarri diren gehienak, eskuineko jendearen ondorengoak izan dira, beldurra ematen zielako haien arbasoak nola irudikatuko nituen. Eskerrak eman dizkirate, oro har. Jende

ANTIXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

ARGITZE ZENTROA

ESTIMULAZIOA

- Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan: Iktusa, traumatismoak, tumorak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa

Ebaluazio neuropsikologiko osoa + txostena
TERAPIAK: Bakarkako terapia, taldekoa eta mistoa



NEUROPISKOLOGOEA

Sanlago, 51
IRUN
635 703055
943 051227

Bizkarra eman dio



Erretiroa hartu du Leire Landak, belaunetako minak atzean utzi ezinik

Zure ibilbidea baldintzatu dute lesioek?

“Kirolaren parte dira. Egia da niri behin baino gehiagotan tokatu zaizkidala, baina ikas-teko ere balio izan didate. Batez ere, konturatzeko lanik gabe ez dagoela helburuak betetzerik. Gainera, jokatu dudanean asko disfrutatu dut, ametsak bete ditut, eta gauza positiboekin geldituko naiz”.

2014an, F.C. Barcelonarekin fitxaketa hitzartuta zuela, eskuineko belauneko lotailu gurutzatua hautsi zuen Landak, Athleticekin Erreginaren Kopako finala jokatzen ari zela, Barçaren kontra, hain zuzen ere. Elkarte kataluniarrak adostutakoa bete zuen, hala ere, eta kontratua eskaini zion. 2014/2015 denboraldiaren erdia galdu zuen, baina bueltan, De la Peñaren 23.zenbakidun elastikoa jantzi ahal izan zuen. Maila ona eman zuen, eta Liga irabazteaz gainera, Munduko Kopan parte hartu zuen urte hartan, Espainiako selekzioarekin.

Kirol helduaroan, urtetako esperientziaz baliatuta, leku finkoa egin zuen Leire Landak Barçaren hamaikakoan, 2015/2016 denboraldian. Taldeak jokatutako 19 neurketetatik 18tan parte hartuta iritsi zen 2016ko martxora. Orduan, zorigaitza bidean gurutzatu zitzaion beste behin ere. Lotailu gurutzatua hautsi zuen berriro, eta zulo ilunera bueltatu zen.

Prozesua ezagutzen zenuen. Lagundu al zintuen?

“Belauneko lesioak, bereziki, oso gogorak izaten dira beti. Ebakuntza ez da sinplea, eta osatzeko prozesu guztia zaila eta luzea izaten da. Talde kirola da futbola, baina halako lesioei aurre egiterakoan, bakardade handia senti dezake kirolariak”.

Beste urte beterako kontratua zuen Landak F.C. Barcelonarekin. Baina irailean, duela urte bete, orotzapez latzak dakartzkion bilera eduki zuen klubeko arduradunekin. “Taldetik bananduko nindutela esan zidaten, nire belaunak ez direlako funtzionalak”, aitortu du, zuzen eta gogor: “Bi hilabete pasako nituela errehabilitazioan, baina hortik aurrera, nire bidea egin beharko nuela”. Hurrengo egunean, taldekideak agurtu behar izan zituen. Ondoren, bi hilabeteko errehabilitazioa egin zuen klubeko osasun zerbitzuarekin. “Ez didate ondo egin. Ez nago osatuta”, salatu du. Luzea egin zaio kirol sasoa, baina ekainaren 30a iritsita, amaitu da Barçarekiko zuen harremana.

Ez duzu futboleko jarraitzeko beste aukerarik bilatu?

“Egia esan, nahiko nekatuta nago futbolarekin. Gaizki bukatu dut, eta nazkatuta nago, ez dut futbolarekin zer ikusia duen ezertan murgilduta ibili nahi”.

Gizarte Hezkuntza ikasketak egin ditu Leire Landak. Orain, Soziologia ikasten ari da. Bajan dago momentu honetan, baina ondoren, bere ikasketekin lotutako zerbaitetan lanean hasi nahi du. Ez du uste futbola alde batera utzita lan munduan murgiltzea bereziki gogorra egingo zaionik: “Ez naiz burbuila batean bizi izan, beti eduki dut presente egunen batean futbola bukatuko zela. Ez naiz sekula inguruko gizartearengandik aldendu. Orain lana bilatzea tokatzen da, baina gogotsu nago”. Berdegunetik urrun aurrera egingo du, beraz, Leire Landak.

Kolpeak jaso eta gainditu izan ditu, bata bestearen atzetik. Borrokalari petoa da. Ametsak betetzeko, lana gogotik egin beharra dagoela erakutsi dio bizitzak. Aro bakoitzak bere amaiera izaten du, ordea. Leire Landaren (Irun, 1986) eta futbolaren artekoa, udara honetan bukatu da. Ekainaren 30ean amaitu zaio kontratua F.C. Barcelonarekin, eta botak alde batera utzi ditu, behin-betiko. Azkeneko denboraldian ezin izan ditu erabili, belauneko enegarren lesioak zelaitik kanpo utzi baitu. Medikuek ondorioztatu dute Landaren belaunak ez direla “funtzionalak”. Urte beteko kalbarioa igaro ondoren, erretiroa hartzea erabaki du alboko atzelari ohiak.

“Lesioek balio izan didate konturatzeko lanik gabe ez dagoela helburuak betetzerik”

Txikitako ametsa bete zuen Leire Landak 2015ean, 23 zenbakia zeraman elastiko blaugrana jantzi zuenean. Izan ere, hogei urte lehenago, 1995ean, Ivan de la Peña futbolariaren debuta ikusi zuen, ospitaleko gelako telebistan. 19 besterik ez zituen arren, burusoila zen Barçako jokalaria berria. Horrek, Leire Landaren arreta erakarri zuen. Bederatzi urteko neska ere ilea galtzen ari baitzen, kimioterapia tratamenduaren eraginez. Burkitt linfomaren, sistema linfatikoko minbiziaren kontrako lehian ari zen, bete-betean. 23 zenbakia zeraman jokalaria hark aurrera egiteko indarra eman zion orduan.

Behin-betiko alta 2013an jaso zuen Landak, baina ordurako, futbol ibilbide luzea zeraman bizkarrean. Oartzunen hasi zen lehia federatuan, lehen urratsak Txingudi Ikastolan eman ondoren. Gero, Real Sociedad, Atlético de Madrid eta Athletic Club taldeetan ibili zen. Tartean, hainbat oztupo gainditu behar izan zituen, askotan, lesioak tarteko.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Irailaren 30ean izango da Txingudi Korrika

Urme inmobiliaria da probaren babesle berria



Irailako azken egunean izango da aurten Txingudi Korrika herri lasterketa, hilaren 30ean. Hemeretzigarren aldiz antolatu du Super Amara-Bidasoa Atletiko Taldeak, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuegoaren laguntzarekin. Aurten babesle ofizial berria du gainera, Urme inmobiliaria aholkularitza enpresa. Hendaia, Irun eta Hondarribia lotuko ditu lasterketak, 10km-ko ibilbidearekin. Lasterkakoaz gainera, roller (patinak) eta handbike (gurpil-aulkiak) probak egongo dira.

Hendaia La Florida kaian egongo da irteera, Tribord dendaren aurrean. 16:20an roller kategoriako parte hartzaileak aterako dira, eta 16:30etan, lasterkako proba nagusia. Txingudi Badiako hiru hirietako hiriguneak zeharkatuko ditu lasterketak. Helmuga, Hondarribiko Hondartza kiroldegiko atletismo pista egongo da. "Proba kuttuna da eskualdeko korrikalarien ar-

"Proba erakargarria da kanpoko korrikalariarentzat, ibilbide ederra duelako"

Ibon Muñoz, Super Amara-BATEko kirol zuzendaria

tean", baieztatu du Ibon Muñoz Super Amara-BATEko kirol zuzendariak: "Gainera, erakargarria da kanpokoentzat, ibilbide ederra duelako".

Eskualdetik kanpokoentzat, batez ere, autoak Hondarribiko Kai Zaharreko aparkalekuan, edo kiroldegiaren inguruan uzteko gomendatu dute antolatzaileek. Izan ere, autobus zerbitzua egongo da, Butron pasealekuko geltokitik, irteera guzterako (14:45, 15:00 eta 15:15). "Denborarekin mugitzeko eskatu nahi genioke jendeari, azken momentuko pilaketak egon ez daitezen", nabarmendu du Muñozek. Gainera, Hondarribia eta Hendaia lotzen dituen ontzia hamabost minuturo irtengo da. Irteeran, parte hartzaileen motxilak jaso eta helmugara eramango dituen furgoneta bat egongo da.

Izen-emateak Irungo Leire Sport kirol dendan (Mendibil Merkataritza Gunean), Hondarribiko Papycop paper-dendan (San Pedro, 42), edo Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoan (Palmera-Montero Gizarte Zentroan) egin daitezke. Internet bidez, www.kirolprobak.com web gunea da baliabidea. 10 eta 14 euro arteko prezioak dituzte izen-emateak, alde zuzenekoekin gero. Probaren egunera arte itxaroten duenak, 18 euro ordaindu beharko du.

Izen-ematea irailaren 28a baino lehen egingez gero, Bidasoa Atletiko Taldearen egoitzan jaso ahal izango dira dortsalak (Ramon Iribarren, 4, Dunboa), irailaren 28an eta 29an, 17:00etatik 20:00etara. Gainerakoak, lasterketaren egunean

emango dituzte, irteera gunean, 15:00etatik 16:15etara. Elkarrekin antolatutako edozein ekimenetan bezala, azpimarratzekoa da boluntarioen lana. Zentzu horretan, BATEk Urpean urpekaritza elkarrekin laguntza izango du, Hendaia ibilbiderako. "Eskualde mailako izaera azpimarratuko nuke, Txingudi Korrikari dagokionez", adierazi du Pedro Alegre Irungo Udaleko Kirola arloko ordezkariak: "Elkarrekin eta erakundeen arteko harremana ona da".

"Eskualde mailan, elkarrekin eta erakundeen arteko harremana ona da"

Pedro Alegre, Irungo Udaleko Kirola arloko ordezkaria

Goizean, Korrika Txikia

Txingudi Korrika Txikia ere antolatu du Super Amara-BATEk, hirugarren urtez segidan. Irailaren 30ean izango da, goizez, 10:00etatik aurrera, Stadium Galeko belar artifizialeko futbol zelaian. Hamahiru urtera arteko haurrek parte hartu ahal izango dute. Txikienek, gurasoen laguntzaz. Adinaren arabera, distantzia ezberdinetako lasterketak egingo dituzte. Proba bakoitza baino hamabost minutu lehenago, parte hartzaile guztiek beroketa eremuan egon beharko dute.

Duela bi urte, Real Unionen mendeurrenaren harira martxan jarri zutela gogorazirazi du Ibon Muñozek, baina geratzeko iritsi zela: "Arrakasta handia du. Azpimarratu ez dela proba lehiakorra, ez dagoela denborarik ezta sailkapenik ere". Lehen bi edizioetan, 600 eta 800 parte hartzaile artean ibili dira. Lasterketa guztiak doakoak izango dira, eta www.kirolprobak.com web gunean eman daiteke izena.

Ohiko parte hartzaileak saritu nahi ditu BATEk

Gero eta gehiago dira Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak antolatzen dituen probak. Bidasoar askok bat baino gehiago egin ohi du urtero, eta hori kontuan hartuta, Plan Km+ ekimena martxan jarri du BATEk. Ohiko parte hartzaileak saritzeko modua da.

Puntuak ezarri dizkie BATEk lasterketei. Parte hartzaileek, bakoitzari dagokion puntu kopurua bilduko dute. Puntu horiek, lasterketetan doan izena emateko, edo Super Amara BATEko arropa eskuratzeko balioko dute. Parte hartzeko, Super Amara BATEko bazkide egitea da baldintza bakarra.

Elkarrekin gisa beste aurrera pauso bat emateko modua da Bidasoa Atletiko Taldearentzat. Era berean, nabarmentzekoa da elkarrekin Uvesco enpresarekin eta Super Amara markarekin duen harremana luzatu duela irailean. Beste hiru urtez izango da Super Amara, Bidasoa Atletiko Taldearen babesle nagusi. 2011n hasi zen harremana, Super Amarak denda Irunen ireki zuenean, eta 2020ra arte luzatuko da, gutxienez.

Bisaurín (Aragoiko Pirinioa) (2.670 m)

GORKA MARTINEZ

Distantzia: 5,5 km.

Gehieneko altuera: 2670 m.

Desnibel metatua: 1130 m.

Denbora: 5 ordu (geldialdiak barne).


Zailtasuna: Gogorra, desnibel handiagatik. Zailtasun teknikorik ez.

Mendebaldeko Pirinioko mendirik garaiena da, Arangües del Puerto herriaren bailaran kokatua (Huesca). Udarako azken asteburuetako bat baliatuta, Pirinioetara irteera bat egiteko aukera ona da. Ez du zailtasun tekniko handirik, beraz, halako igoeretan lehen pausoak emateko aukera ona izan daiteke. Lizara aterpetxean hasten den ibilbidea egingo dugu.

Iruñeatik Jacara bidean, Puente la Reina de Jaca herrian A-176 errepidea hartuko dugu, Arangües del Puerto herriraino. Ondoren, 9 km-ko bidea edukiko dugu Lizara aterpetxeraino. Doako parking-a dugu bertan, ibilgailua uzteko.

Aterpetxea albo batean utzita, GR-11, Pirinioak gurutzatzen dituen bidea hartuko dugu. Marka zuri-gorriak jarraituta, 20 minuturen buruan iturri batetara iritsiko gara. Hortik aurrera, igoeraren lehen zatia eroso da, belarrez inguratua. Lurrezko bidea erraza da jarraitzen. Foratón lepora ailegatuko gara laster (1:30).

Hortik aurrera, igoera gogorragoa izango da. GR-11 utziko dugu lehenengo, eta belardia ondoren, harri solteen artean aurrera egiteko. Gailurrera iritsi eta bista ikusgarriekin gozatzeak nekea baretuko digu (3:30). Jaitziera beste aldetik egin daiteke, baina luzeagoa eta arriskutsuagoa da. Bide beretik itzuliko gara, hortaz, Lizara aterpetxeraino.



Belaskoenea HH



Euzkaraz, Irunen barrena

Txingudi Ikastola DBH4

Walt Disney urtua

Bi ondarritarren gomertziyua

Bi neska zien elkarren lagunak eta ikusten zuten oso maiz elkar. Eta denbora mordoxka etzuten ikusten batak bestia, ta egun batian ikusi zuten elkar.

Batak esantziyon bestiari:

- O neska! Orrenbeste denbora ikusi gabe!

Eta bestiak esantziyon:

- Bai, espostu ein nan ta.

-O! Zeñekin.

- Kale garbitzalle batekin.

- O! Ori kaballero! Eta non bizi zate?

- Ganbara batian.

- Ori palazio! Eta zer jaten zute?

- Baatzuriyan zopa.

- Ori banketazo!

S.R.A. andreareari jaso (1959-VII-13). Bi hondarribiarren arteko elkarrizketa hau Biasu Behobiako Karmen Urkiak kontatu zion, duela hogeita hamabost bat urte. (El Bidasoa, 1959-IX-19)

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena**

Uste al duzu bakarrik janaria urtu daitekeela? Irakur ezazu berri hau eta ikusiko duzu erratuta zaudela!

Azken hilabete hauek Estatu batuetan Burbank-en konkretuki, bero pila egin du eta 40º-tara iritsi da. Ba al dakizu Burbank-en Walt Disney-k hil zela eta han bertan izoztu zutela? Bueno ba gaur goizean 40ºtik gora egin du eta, izotz hori urtu egin da!! Orain ospitalean dago, bizirik egon daitekeela uste dutolako. Hiru ordu pasa dira eta babil Walt Disney-k begiak ireki egin ditu!! Hori bai, gauza askotaz ez da gogoratzen baina guzti-guztia aza du diogu eta pixkanaka hobetzen doa.

Momentuz ez dakigu ezer gehiago baina berriren bat izatera-koan, abisatuko dizuegu.

Mila esker eta hurrengora arte!



Walt Disney-ren historia: Walt Disney-k ezaguna da, Disney-ko pelikula geienak egiteagatik eta Disney jolasparkeak asmatzeagatik. Berez, berak asmatu zuen parke bakarra Estatu batuetako DisneyWorld da.



Zergatik izoztu zuten?

Lehenik eta behin, jakin ezazue Walt Disney-k eskatu zuela bera hiltzerakoan, izoztua izatea. Teoria pila daude horri buruz baina benetakoa hurrengo hau izan zen: Walt Disney gutako edonor bezala, ez zitzaion gustatzen heriotza eta modu batera esanda burlatu nahi zuen berataz. Hori dela eta izoztea erabaki zuen.

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Euskal Herriko dantzak Italiara eramán ditu Kemenekek

Basilianon izan da Irungo taldea, irailaren hasieran

Danzando Tra I Popoli jaialdiaren XVII. edizioan parte hartu du Kemen Dantza Taldeak, Blesano di Basilianon, Italia ipar-ekialdean. Irungo taldeko 30 ordezkarik inguru izan dira bertan, iraileko lehen asteburuan. Kultura minoritarioei eskainitako edizioa izan da aurtengoa, eta Larratz (Burlata, Nafarroa) eta Atlantic Rhythm (Irlanda) dantza taldeek ere parte hartu dute, Danzerini Udinesi etxeko taldearekin batera.

Gipuzkoako dantzak, Zuberoako maskarada eta Lapurdiko inauteria eskaini ditu Kemenekek festibalean. "Euskal Herriko dantzak eta kultura zabaltzea da taldearen helburuetako bat, eta horrelako jaialdiei esker betetzen dugu, besteak beste", azaldu du Ander Amantegi taldekideak. Gainera, Burlatako Larratz taldeak ere euskal dantzak lantzen dituela kontuan hartuta, bien artean Euskal Herriaren argazki esanguratsua eskaini dutela uste du Mikel Button presidentek: "Ia zazpi lurraldeetako dantzak eta musikak eskaini ditugu".

Pena bakarra dute Kemeneko ordezkariek: nahi baino gutxiago dantzatu izana. Izan ere, eguraldi txarraren ondorioz, bertan behera gelditu dira egitarauko zenbait desfile eta dantza saio. Jendearen harrerarekin, aldiz, pozik dago Amantegi: "Gure dantzak ikusteko gogoia eta ilusioa erakutsi dizkigute. Herri txikiak ziren, baina jende asko biltzen zen dantzekin gozatzera". Antolatzaileen eskutik izan dute Kemeneko ordezkariek bertako, Friuli eskualdeko kultura-aren eta hizkuntzaren berri. "Oso interesgarria izan da", aitortu du Buttonek.

Dantzatzeaz gainera, leku eta jende berriak ezagutzeko aukera izan dute Kemeneko ordezkariek. Torinon geldialdia egin dute jaialdira bidean, eta Udine hiria ere bisitatu dute, Basilianoko herriez gainera. "Taldeen sortu den giroa bikaina izan da. Barne kohesiorako oso aproposak dira horrelako bidaiak", adierazi du Ander Amantegik. Taldekide askorentzat, gainera, lehen esperientzia izan da, belaunaldi aldaketa handia eman baita taldean, azken aldian. Indartsu omen datoz Kemeneko gazteak.





Adi!!! Aurten esne-mamitan ibiliko gara!!!

Irun Rock 2017 Jaialdia irailaren 29 eta 30ean eta urriaren 1ean iritsiko da, kalea musika independente onenaz betetzeko.

2017an egingo da zortzigarren edizioa, eta jatorrira itzuliko da. Musika onenaz gozatu ahal izango dugu San Juan plazan, 12:00etatik gauko ordu txikietara arte.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ORAIN ZURE TXANDA DA. Zer egingo zenuke 200.000 euroekin?

Irungo Gazte Bideoaren XXI. lehiaketa 2017


Egunak: abenduak 26, 27 eta 28.

Sail Ofiziala: Bideoz egindako film laburrak.

Bidasoa Eskualdea: Eskualdeko egileen lan nabarmenduenak.

Epea: Urriak 6.

Oinarriak: www.irun.org.



... eta zuk, zer diozu? Mugi zaitez, Al-darrikatuta, Parte hartu...

Bai, zuek, gazteok, orain aukera duzue!!!, ba al duzue esatekorik? eta zuk, zer diozu? Zure iritziak ere balio du.

Zer falta zaio Iruni?, zer aldatuko zenuke?, zer jarriko zenukete? Zertan gastatuko zenituzke 200.000 euro horiek?

Orain, erabaki dezakezue! Bota zure proposamena! Nola? **AURREKONTU PARTE HARTZAILEEN** bidez.

- **Epea:** Irailak 21.

- **Internet bidez parte hartzeko:** www.irun.org/igazte.

- **Aurrez-aurreko foroa:** irailaren 19an, asteartea, aurrez-aurreko foroan parte har dezakezu. Hurbil zaitez CBAra (San Juan Harria plaza, z/g, -1 solairua), 18:00etan.

Iraileko ordutegia IGazten

IRAILEAN, IGazte ordutegi honetan eskainiko dizu arreta: astelehentik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

Hori bai, gogoan har ezazu gure atek interneten egunero-egunero 24 orduz irekita daudela!

Bidaliezaguzu posta bat zure zalantzarekin, iradokizunarekin edo informazio eskariarekin! www.irun.org/igazte/



EKAR teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705
 info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

 Pisua salgai Irun Alde Zaharra Azalera 50 m ² , 2 gela, balnaita, egongela, kuxinak, hondoerria, teilatua, ingurumenak, oso argia. 315.000 €	 Pisua salgai Irun Larramendi Azalera 32 m ² , 2 gela, balnaita, egongela, kuxinak, gar-bendotua, 2 baloi, trasteroa, ingurumenak, oso argia. 127.000 €	 Pisua salgai Irun Aizkari-Portu Azalera 75 m ² , 3 gela, balnaita, egongela, kuxinak, terraza, bota eta txepeta. 139.000 €
 Pisua salgai Irun San Juan Azalera 100 m ² , 3 gela, balnaita, egongela, kuxinak, trasteroa, terraza, gar-bendotua, ingurumenak, oso argia. 145.000 €	 Pisua salgai Irun Aizkari-Portu Azalera 47 m ² , 3 gela, 2 balnaita, egongela, kuxinak, trasteroa, ingurumenak, oso argia. 170.000 €	 Pisua salgai Irun Dombria Azalera 31 m ² , 3 gela, 2 balnaita, egongela, kuxinak, trasteroa, ingurumenak, oso argia. 240.000 €
 Pisua salgai Irun Kelen Azalera 110 m ² , 3 gela, balnaita, egongela, kuxinak, gar-bendotua, terraza, trasteroa, ingurumenak, oso argia. 310.000 €	 Etxea salgai Mendola Azalera 116 m ² , 3 gela, balnaita, kuxinak, egongela, kuxinak, trasteroa, ingurumenak, oso argia. 299.000 €	 Etxea salgai Irun Ventas Azalera 200 m ² , 4 gela, 2 balnaita, 2 terraza, egongela, kuxinak, trasteroa, ingurumenak, oso argia. 407.000 €

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK LASAITASUN OSOZ, KONTSULTATU!!

Irailak

**15-16
17**

Expogrow kalamuaren Na- zioarteko VI. Azoka

Non: Ficoban.
Prezioak:

- Egun bateko sarrera, Irailak 15 edo 16: 15€ online erosita + distribuzio gastuak. Lehiatilan 18€.
- Bi eguneko sarrera, irailak 15, 16 eta 17 aukeratu: 23€ online erosita + distribuzio gastuak. Lehiatilan 26€.
- Hiru egunetarako abonua, Irailak 15, 16 eta 17: 28€ online erosita + distribuzio gastuak. Lehiatilan 30€.
- Sarrera, Irailak 17 igandarako: 12€ online erosita + distribuzio gastuak. Lehiatilan 15€.
- Aparkalekua doan 08:00-22:00.

17

Girabira

Egitaraua:

- 12:00 Antzezlanak: "Primatium, un tropiezo en la carrera espacial", "El mono habitado" taldearen eskutik.
- 13:00 Rubio. Acoustic blues eta folk rock.
- 14:00 Ekin!: 14:00 Antzerki tailerra haurrentzat.
- 15:00 Antzerki tailerra helduentzat
- 14:00 DJ Kicks - Fribotik.

Non: Gain Gainean parkean.

Prezioa: Doan.

18

Aurrekontu parte hartzaileak

Zer: Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan bigarren bilera. Bertan interesatutako guztiek beraien proposamenak aurkeztu eta eztabaidatzeko aukera izango dute.

Non: CEIP LEKAENEA.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Doan.



22

XII. Dantza hirian

Egitaraua:

- Zabaltza plazan:
- 17:30: Haurrentzako dantza eta pintura tailerra.
- 18:30: Chey Jurado
- 18:45: Montón de Paja y Trigo (Barcelona).

Justizia Jauregia (José Ramón Amunarriz Plaza):

- 19:00: Elias Aguirre (Madrid).

Prezioa: Doan.

23

Lapurriturri: Meatzaritza

Zer: Felix Ugarte Elkar-teko adituaren eskutik txango kulturala izango da. Aiako Harria Parke Naturalean, zein bere inguruetan ere, meatzaritza jarduera garrantzi handikoa izan da.

Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara.

Non: Lapurriturri informazio gunean.

Prezioa: Doan.

azaroak 1 arte

Erakusketa: "IKI-MILIKILIKLIK: J.A ARTZE-REN UNI-BERTSOA"

Zer: "Ikimilikiliklik" erakusketa JA Artze, azken hamarkadetako euskal sortzaile originalenetako bati buruzko bideo instalazioa da.

Non: Oiasso Erromatar Museoa.

Ordutegia:

- Astelehenetan itxita.
- Astearte, asteazken eta ostegunetan: 10:00etatik 14:00etara.
- Ostiral eta larunbatean: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.
- Igandeetan: 10:00etatik 14:00etara.

Prezioa: Doan.



**HERRI
JAKINTZA**
euskaltegia

IKASI EUSKARA

**HITZ EMAN
EUSKARARI**



Malla guztiak

Hizkuntz eskakizunak

HABE titulu ofizialak

EGA | IVAP | IRALE

Guraso taldeak



**Matrikula
zabalik
2017/18**

Matrikula:

11:00etatik - 13:00etara

17:00etatik - 19:00etara

Iruten,
zuk
euskaraz!



**HERRI
JAKINTZA**
euskaltegia

HADE

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)

Telefonoz ere matrikulatu | 943-635-266

herrijakintza@gmail.com

